

# Arozgoan arituz egiten gara arotz



**arozgo** iz. *lpar.* 'errementariaren lanbidea'.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# Ortzadarraren pare da zure adiskidegoa niretzat



**adiskidego** iz. *Lap.* eta *Naf.*: 'adiskidetasuna, adiskidantza'.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



-**GO** atzizkiak bi adiera nagusi izan ditu tradizioan:

## 1. Lanbidea, ofizioa

- Napoleonek **buruzagigoa** kendu zion Joseph anaiari, eta Soult mariskalari eman.
- **Itzaingoa** beste edozein bizibide baino neketsuago da.



apaizgo, bidezaingo, merkatalgo, nekazalgo, notalgo...



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



## 2. -TASUN atzizkiaren baliokidea

- **Ahaidegoa** ez da arrazoi inor maitatzeko, edo gorrotatzeko.
- Mindurik zegoen nirekin, baina ez nuen uste haren **etsaigoa** bion artean haustura iraunkor bat eragiteko bezain handia zenik.



Universidad  
del País Vasco


Euskal Herriko  
Unibertsitatea



Azken urteotan, **-GO** atzizkiari ez dagokion erabilera bat zabaldu da: multzo edo taldea adieraztekoa.


Hona erabilera baztergarri horren adibide batzuk:

- \***Biztanlego** handia du Alemaniak: 82.310.000 bizilagun.
- \*Emanaldi berezia egin zuten eta **entzulego gaztea** erakarri zuten.
- \*Iruñerriko **euskaldungoa** elkarretaratzeko balioko du festak.
- \***ikaslegoak** eta **irakaslegoak** erabakitzeko ahalmen urria dute.
- \***ikuslegoak** ondo erantzun du orain arte.
- \*Azken eleberriak harrera ezin hobea izan du **irakurlegoaren** aldetik.



## Tradizioaren arabera, hauek dira egokiak:

- **Biztanle kopuru handia** du Alemaniak: 82.310.000 bizilagun.
- Emanaldi berezia egin zuten eta **entzule gazteak** erakarri zituzten.
- Iruñerriko **euskaldunak** elkarretaratzeko balioko du festak.
- **Ikasleek** eta **irakasleek** erabakitzeko ahalmen urria dute.
- **Ikusleek** ondo erantzun dute orain arte.
- Azken eleberriak harrera ezin hobea izan du **irakurleen** aldetik.



Bestela, **-ERIA** atzizkia erabil daiteke, hark baitu **-GO** atzizkiari eman nahi zaion zentzu multzokari hori.

- Lehengo mendean ia laukoiztu egin zen **biztanleria**.
- **Bezeria** handia zuen dendari hark.
- **Entzuleria** gaztea erakarri nahi dute.
- Zein dira **irakasleriaren** arazo nagusiak?



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**Hiztegi batuan** ageri dira tradizioko **-GO** atzizkidunak. Komeni da horietara mugatzea. Oso tentuz ibili berriak asmatzen.

Hona zenbait hitz desegoki eta haien ordain egokiak, hiztegi horretan bilduak:



administralgo*	e. administrazio.
biztanlego*	e. biztanleria.
entzulego*	e. entzuleria, entzuleak.
ertzaingo*	e. ertzaintza.
ministergo*	e. ministerio



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Gehiago jakiteko, irakur bedi  
*Euskaltzaindiaren* araugintzako 73.  
erabakia:

“-go atzizkia eta izen multzokariak”

[http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0073.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0073.pdf)



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

